

Hamazazpi

2014ko negua



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

- _ VENERENGANDIK AIURIRENGANAKO ZIGOITIA: BOST BELAUNLDIREN HISTORIA
- _ BENGOLARRAKO TABERNAK DESFIBRILADORE BAT IZANGO DU
- _ I BERDINTASUN PLANA HERRITARREN EKARPENEI IREKITA
- _ ETXAGUENGO HOBI KOMUNEKO HILDAKOEI OMENALDIA
- _ EGUBERRI HONETAN, ZAPOREAK MADE IN ZIGOITIA
- _ ALDAKETA UDAL GIZARTE-ONGIZATE SAILEAN
- _ *DOMINIZUBI* MUSIKA ELKARTEA



Hasteko...



04 Bost belaunaldiren historia

Venerengandik Aiurirenganako Zigoitia

Hemen eta orain



07 Aldaketa Gizarte-Ongizatean

Manuel Vigok zinegotzi izateari utzi dio eta bere ordeiz Xabier Sanchez ari da



08 I Berdintasun Plana

Herritarren ekarpenak jasotzeko irekiko da, eztabaida teknikoak eta politikoa egindakoan



09 Memoria Historikoa

Etxaguengo hobi komuneko hildakoen omenaldia

Made in Zigoitia



11 Dominizubi musika elkarte

Musika eta dantza Zigoitiko giro kulturala pizteko

Planak



12 Zaporeak Made in Zigoitia

Gorbeiako ezti, Idiazabal gazta, baserriko arrautzak, ogia, haragia, barazkiak...

Liburutegitik, maitasunez



14 Javier Arbuluren kolaborazioa

William Blakeren bala(dak)

Azkena



16 Batzuk

- Matxurak argiteria publikoan? Abisatu, mesedez
- Autobus ordutegiak

Staff

HAMAZAZPI. Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2014 ko negua

Azaleko argazkia: Imanol Txi. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

Koordinazioa eta erredakzioa: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com; Alfredo Castresana.

Diseinua eta maketazioa: Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

Imprimaketa: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Kale-Ondasun Higiezin Zerga bi epetan ordainduko da 2015ean

Orain arte, Kale-Ondasun Higiezin Zerga zatika ordaintzea norberak eskatu ahal zuen aukera bat zen; udal bulegoetan alde aurretik eskatu behar zen eta bakarrik 200 eurotik gorako ordainagiriaren kasuan. Datorren urtean, aldiz, zergadun guztiei 2 epetan kobratuko zaie (lehenengo %50a maiatzaren 1etik ekainaren 30era artean eta bigarren %50a irailaren 1etik urriaren 31ra artean). Landa Higiezin Zerga, ordea, ordainketa bakarrean abonatzen jarraituko da.

Ordaintzeko moduari dagokionez, berdin jarraituko da. Lehen bezala bi aukera daude: finantza-erakundeetan helbideratutako

ordainketaren bidez (zergadunaren kontu korrontean) edo Zigoitiko Udalaren kontu korrontean zuzenean dirua sartuz, zabalduko den borondatezko epearen barruan.



2014 – 2015ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA

Borondatez epea:
2014-11-01 _ 2014-12-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Abenduaren hasieran

ABELTZAINZA KANONA ..

Borondatez epea:
2015-02-01 _ 2015-03-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Martxoaren hasieran

LANDAK

Borondatez epea:
2015-02-01 _ 2015-03-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Martxoaren hasieran

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA

Borondatez epea:
2015-03-01 _ 2015-04-30
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Apirilaren hasieran

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa:
945 46 40 41. Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.
Faxa: 945 46 40 52, e-mail:
zigoitia@zigoitia.org

FINANTZA-ERAKUNDEETAN HELBIDERATU GABEKO ORDAINKETAK

Ordaintzeko lekuak:
Vital Kutxaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan.
Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitikoudala.org (Nire ordainketa).

FINANTZA-ERAKUNDEETAN HELBIDERATUKO ORDAINKETAK

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

AHOLKUAK

Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarik jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

BETEARAZPEN EPEA

Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra adierazitako epeetan.

Vene herenamonak 96 urte ditu eta Aiuri bere herenilobak 5 hilabete

VENErengandik AIURIrenganako ZIGOITIA: BOST BELAUNALDIEN HISTORIA



Vene Ruiz Santosen familia.

LEHEN BELAUNALDIA

Egin dezagun atzera denboran, goazen 1918ko azaroaren 13ra arte, egun hartantxe sortu zen mundura Trebiñoko Dordoniz herrian istorio honen protagonista nagusia: Vene Ruiz Santos. Urte asko pasatu badira ere, Vene Ruiz Santos sasoiaren da oraindik; ondo moldatzen da janzteko, garbitzeko eta orrazteko. Umore oneko eta buru argiko dirau Venek, eta Zigoitiko Eguneako Arretarako Landa Zentroko langileek diotenez, laguntza handia ematen die gainerako erabiltzaileei. Zentro horretan bertan lan egiten duen Maite bilobak dioenez 'jarrera ezin hobea izateaz gain, zirikatzaile galanta ere bada'.

Vene Markinan jaiotako Fermin Otxoa de Eribe Zestaferekin ezkondu zen, eta Gasteizen bizi izan ziren hainbat urtez, Zigoitira etorri

aurretik. Maite bilobak oso gogoan du Fermin: 'hura paregabea zen, langile fina, eta festazale handia'. Gorbeia mendiarekiko zaletasuna zor dio Maitek aititari. Fermin bizirik zela, Gorbeia igitzen ziren familiakoak urtero, Santiago egunean, eta jaistean bazkari ederra egiten zuten. Venek eta Ferminen hiru seme-alaba eduki zituzten: Maria Jesus Otxoa de Eribe Ruiz, Jose Luis Otxoa de Eribe Ruiz eta Juli Otxoa de Eribe Ruiz, alegia, bigarren belaunaldia.

BIGARREN BELAUNALDIA

Maria Jesus da, istorio honen pasadizoak kontatu dizkigun Maite Rubina Otxoa de Eriberen ama. Trebiñun jaioa, Urduñan sortutako Jose Antonio Rubina Mendiarekin ezkondu zen 1960. urtean. Bilbon eta Gasteizen bizi izan zen, eta bi hiri horietan ile apaintzaile

aritu zen Maria Jesus; Jose Antoniok, berriz, garraio enpresa batean lan egin zuen. Zigoitira etorri behar zutela erabakita, Akosta aukeratu zuten bizileku, San Pedro baserriak auzoan. Euren etxe ondoan garai batean sona izan zuen Aritza sagardotegia eraiki zuten.

Maria Jesus Otxoa de Eribe dantzazale porrokatua izan da, eta, hain zuzen ere, dantzaldi batean ezagutu zuen Jose Antonio senarra. Honek ere dantza eta ezpel egurrez koilarak egitea ditu gustuko, baita arrantza eta antigoaleko gauzak biltzea ere.



Maite Rubina eta Aiuri Iduya.

HIRUGARREN BELAUNALDIA

Maria Jesusek eta Jose Antoniok bost seme-alaba izan zituzten: Maite, arestian aipatu duguna, Idoia, Asier, Unai eta Aritz. Idoia eta Aritz kenduta, beste hirurak Zigoitian bizi dira: Maite Eriben, Asier Zestafen eta Unai Akostan. Maite Rubina Otxoa de Eribe Bartzelonan jaio zen, orain dela 54 urte. Duela zortzi Zigoitiko Eguneako Arretarako Landa Zentroan behar egiten du. 'Izugarri gustatzen zait. Adinekoak zaintzen ditut, eta horien artean amama Vene ere bai, baina ez pentsa harekin bigunagoa naizenik, ezta pentsatu ere!'.

Maite Eribe herrian sortutako Luis Iduya Eguiarekin ezkondu zen, eta 1996. urtean txalet bat eraiki zuten Eriben bertan. Maitek dioskunez, Luis batera eta bestera ibiltzen da txoferra delako. 'Gasolioa garraiatzen du, eta, jakina, neguan lan gehiago egin behar izaten du'.

Maitek asko maite ditu Eribe eta ondoko mendiak; sarri joaten da *Alto Mojon* deitzen duten hartara. Mendizalea, beraz, eta animalia



Herenamona eta hereniloba.

zalea. Loro bat eta hamar zakur ditu. Baina guztietan kuttunena Yorkshire arrazako Urtz txikitxo da. 'Erdi zoro jaio zen, eta hilko zela uste nuen, baina, azkenean, aurrera ateratzea lortu nuen'. Animaliekin denbora asko pasatzen du Maitek, baina beste gauza askotarako ere abila da, esaterako, eskulanetarako. Hile guztietako bigarren igandean, azoka egunean, mahaitxo bat jartzen du Gopegin, berak egindako bisuteria eta kremak saltzeko. Luis, Maiteren senarrak ere mendia maite du, eta, batez ere, ehiza larria. Eribe, Gopegi, Trasponte eta Koartangora joaten da lagunekin. Baina jarrai dezagun laugarren belaunaldiarekin.

LAUGARREN BELAUNALDIA

Oso gazte zirela, Maitek eta Luisek seme bat eduki zuten, Arkaitz Iduya Rubina. 33 urte ditu eta Gopegin bizi da bere emazte Nerearekin. Biek mendia dute gogoko, eta jaio berri den Aiuri semearekin sarri joaten dira.

BOSTGARREN BELAUNALDIA

Gurasoen eta, noski, Maite amamaren kuttuna da Aiuri Iduya Goikoetxea. 'Zoriontsu nago' dio amamak, biloba aipatuta. Aiurik bost hilabete baino ez ditu, eta bost belaunaldiren azken kate begia da: Vene, Maria Jesus, Maite, Arkaitz eta Aiuri, hereniloba eta bosgarren gizaldikoa. Zigoitian erroak dituen familia baten istorio ederra!

Desfibriladorea Bengolarrako tabernan

Erabili irakasteko Udalak 6 orduko ikastaroa eskainiko du

Zigoitiak badu desfibriladore bat. Kokaleku ezberdinak aztertu ondoren, Bengolarrako tabernan jarriko da, ordu-tegi zabalena duen leku publikoa delako.

Bihotzeko etenaldia gertatu ondoren, deskarga elektriko baten bidez bizi-konstanteak errekuperatzen laguntzen duen aparailua da desfibriladorea. Bihotz-gelditzea gertatzen denean, pasatzen den minutu bakoitzean bizirik irauteko aukerak %10a jaisten dira. Horregatik funtsezkoa da lehenengo 3 edo 4 minutuetan aritzea.

Desfibriladorea erabiltzea ez da zaila, baina gutxieneko prestakuntza behar da. Hori dela eta, Udalak 6 orduko ikastaroa eskainiko du, Gurutze Gorriak emanda. Interesatuta dauden pertsonak izena eman ahal dute udal bulegoetan.



Garraio publikoa:

Gasteiz/Zigoitia autobus linea berriaren atzerapena

Informazio hau idazterakoan Arabako Foru Aldundiak ez die erantzun *Errepideko bidaiarien erabilera orokorreko garraio publiko erregularren zerbitzuen aurreproiektuari* aurkeztutako alegazio guztiak.

Ez, behintzat, Erdialdeko Arabako guneari dagokionez, non Zigoitia kokatuta dagoen. Horren ondorioz, autobus linea berria ezin izan da lehiaketara atera oraindik. Eta, gauzak horrela, Gasteiz/Zigoitia linea berria –maiztasun handiagoak, asteburuetan ere garraio publikoa eta herri gehiago lotzeko ibilbide berriak ekarriko dizkiguna- atzeratu egingo dela.

Egon, badago Batzar Nagusiek adierazitako agindu bat, urte bukaera baino lehen Arabako Foru Aldundiak erantzuna eman dezan agintzen duena. Hala ere, kontzesioa ez da lehiaketara aterako urtarrila edo otsailera arte.

Horri lehiaketaren epeak gehitu behar zaizkio, beraz, hurrengo udaberrira arte gutxienez Gasteiz/Zigoitia autobus linea berria ez da

martxan egongo.

Udalak informazioa jaso ahala, zerbitzua martxan jartzeko epeak eta proiektuak izan ditzaketan aldaketak jakinaraziko ditu.



Apodakako autobus geltokia.

Aldaketa Udal Gizarte- Ongizate sailean

Manuel Vigok zinegotzi izateari utzi dio eta, bere ordean, Xabier Sanchez ari da



Manuel Vigo.



Xabier Sánchez.

Zaildua da Manolo – lagunek hala deitzen diote- politikan; lau legegalditan zehar Gizarte gaietan zinegotzi izan da Zigoitiko udalean. Hori gutxi ez, eta Familia eta Gizarteratze sailburu orde kargua ere izan du zortzi urtez, Eusko Jaurlaritzan. Bere bizitzan zehar politika izan du eginkizun nagusi; hala ere, unibertsitatearekin uztartzen jakin izan du. Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzan irakasle aritu da, duela gutxira arte. 'Niretzat, politika oso esperientzia interesgarria izan da, akuilu bat', esan digu.

'Gauzak egiteko aukera'

Egindakoaz harro da Manolo. 'Esan zidaten gauzak egiteko aukera izango nuela, eta hala izan da: lege garrantzitsu batzuk abian jarri ditut, esaterako: diru-sarrerak bermatzen dituen eta familiei sostengua ematen diena; bi lege horiek eragina izan zuten gizartean, eta jendea hobeto bizitzen lagundu zioten'. Udal esparruan, berriz, oso gogoan du Gorbeia Eskola, Eguneko Zentroa eta Zentro Soziokulturala sortzeko egindako lana, 'Zigoitia eratzeko funtsezkoak izan direlako, izan ere, gizarte zerbitzuak dira komunitatera lotzen gaituztenak'.

Azkeneko legegaldiaz dio udal gobernuko kideek zein oposiziokoek gizarte gaiekiko konpromiso handia erakutsi dutela. 'Hainbat ekimen onartu ditugu: berdintasunerako diagnostikoa, Enplegu plana eta Hirugarren adinerako diagnostikoa; ezinbesteko lan tresnak dira pertsona helburu duten politikak egin ahal izateko'.

Manuel joan badoa udaletik, baina giza konpromisoa ez du bazter utziko. 'Hemendik aurrera denboragehiago izango dut familiarako eta nire gauzatarako'. Eta *gauza* horien artean, *Bultzain* elkarteko Satur Garciarekin batera kalean bizi diren behartsuak artatzea izango da. 'Alderdiaren gora beherek, dagoeneko, ez naute motibatzen; horretarako gogorik ez dut. Nahiago dut sistematik kanpo dagoen jendearekin lan egin; kalea dut gustukoago, zer edo zer egin ahal izatea'.

Hirigintzari bultzada

Xabier Sanchez izango da Manuel Vigoren ordezkaria udalean; Sanchez arkitektoa da, eta udal lanetan aritu zen estreinako duela zortzi urte. Hirigintza sailean Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaz arduratuko da; plan horrek diseinatuko du etorkizuneko Zigoitia.

Zigoitiko lehenengo Berdintasun Plana

Herritarrek ekarpenak egin ahal izango dituzte, eztabaida teknikoa eta politikoa egindakoa



Jakinarazi nahi dizuegu, bai udalbatza, bai udal honetan zerbitzuak eskaintzen dituen talde teknikoa, gogor ari direla lanean **Zigoitiko lehenengo Berdintasun Planaren zirriborroari buruzko iritzi trukaketan**. Egun hauetan dokumentu hori eztabaidatzen, aberasten eta egokitzen ari dira, parte hartzen duten pertsona guztien ikuspuntu eta ekarpenekin. Baina esan beharra dago, lehenengo Berdintasun Plana Zigoitiko emakume eta gizon guztiona dela, batez ere. Horregatik, udalerrri honetako herritarrak garen aldetik, gure iritzi, ikuspuntu eta esperientziak ekartzeko aukera izango dugu, datozen asteetan. Parte hartzeko dauden moduez informazio zabala emango da, eta ekarpenak jasotzeko nahikoa denbora izango da. Unea heltzen denean, berriro egingo dizuegu parte hartzeko deia, Plan hau udalerrriarena eta bertan bizi garen guztiona izan dadin, benetan.

Gazte Asanbladaren bideoa

Bide batez, jakinarazi nahi dizuegu, Zigoitiko udalak parte hartu duela, lehen

aldiz, Berdintasunerako Foroan. Joan den azaroaren 29an ekimen hori aurkezteko erabili zen autobusa egon zen Ondategin. Batetik, udalbatza eta aho batez onartutako emakumeen aurkako indarkeria baztertzeko azaroaren 25eko erakunde adierazpena irakurri zuten; eta bestetik, Gazte Asanbladak emakumeek hainbat esparrutan pairatzen duten indarkeriari buruzko bideoa eman zuten. Hainbat emanaldi izan ziren eta jende asko etorri zen.

Espero dugu bideoa gozatu izana, eta bide batez, baliagarri izana gai honetaz hausnartzeko, oraingo honetan, gure udalerriko gazteen ikuspuntutik. Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu bideoaren egileei: Miren Txurruka, Lucia Garcia, Olatz Puyo, Xabi Nafarrate, Peio Murua, Dani Santamaria, Ainhoa Aretxaga, Ander Gabiña eta Ainhoa Ruiz de Apodakari.

Eskerrik asko zuen parte hartze eta kolaborazioagatik.

Zigoitiko Udala_Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekin konprometitua

Urriaren 4an, Memoria Historikoaren berreskuratzearen alde

Zigoitiak Etxaguengo hobi komuneko hildakoak omendu ditu



Oso ekitaldi xumea izan zen. Eta oso hunkigarria. Euskadin orain arte aurkitutako hobi komun handienean lurperatutako pertsonen oroimenez. 'Gizon gazteak, 20 urte ingurukoak, hemengoak ez zirenak eta Villarrealgo batailan zendu zirenak', Francisco Etxeberriaren ustez. Etxeberriak, Aranzadi Zientzia Elkartearen zuzendariak, eta bere taldeak atera dituzte gorpuak hobi komunetik. Memoria Historikoa berreskuratzeko prozesu honetan, 10 gorpu errekuperatu dituzte, baina badakite gehiago daudela. Beste pertsona batzuen hezurak aurkitu dira, baina gorpuak ezin izango dira berreskuratu hobia errepidearen behealdetik sartzen delako, eta bideraezina delako. Pasa den urriaren 4ko omenaldian Etxaguengo eta udalerrri osoko bizilagunek hartu zuten parte, eta baita bezperan egon zen hitzaldian ere. 'Arekan lurperatutako memoria' izenpean, Francisco Etxeberriak (edo Pacok, Zigoitian deitzen dioten moduan), Etxaguenen egindako lana azaldu zion etorritako publiko anitzari*. Eta Espainiako guda zibileko hobi komunetatik gorpuak ateratzeko garrantzia aldarrikatu zuen. Hor lurperatuta dauden pertsona guztien duintasuna eta memoria berreskuratzeko.



(*: Zigoitiko hobi komunetik gorpuak ateratzeko prozesuaren dokumentazio guztia liburutegi publikoan dago, interesa duen edonoren eskura).

Fracking-az eztabaidatzea onartu du Eusko legebiltzarrak

Zigoitiak 313 sinadura bildu ditu haustura hidraulikoaren aurka

Pasa den abenduaren 4an, Legebiltzarrak onartu zuen *Fracking EZ Araban Plataformak* haustura hidrauliko teknikaren aurkako aurkeztutako Herri Ekimen Legegilea (HEL) bideratzea (gero talde politikoei eztabaidatzeko).

Plataformak ekimena erregistratu zuen Legebiltzarrean 103.589 sinaduraren laguntzarekin, HEL bat aurkezteko behar diren 30.000 sinadurak zabalki gaindituz eta gizartearen zati handi baten aurkakotasuna adieraziz.

Zigoitiko udaletxean *Fracking*-aren aurka sinatzeko ipini zen txokoa, 313 sinadura bildu ziren (hautesle eroldaren %22'6a). Oso kopuru adierazgarria, udalerrian egindako azken hauteskundeak kontuan hartzen baditugu, Europako Hauteskundeak hain zuzen ere. Orduan,

zerrendarik bozkatuenak 205 herritarren laguntza lortu zuen.

Fracking EZ Araban Plataforma Eusko Legebiltzarrera HEL bat bideratzea onartzen saiatzen den bigarren saiakera da hau. Lehenengoa (2013ko hasieran) atzera bota zuten EAJ, PSE-EE eta PPren aurkako botoekin.



Aurrekontuari buruzko erreportajearen hedapena

HAMAZAZPIren aurreko alean azaldutako 'Udal kontuen 7 gakoak' erreportajearekin lotuta, argitaratutako kronologiaren hedapena sartzen/jartzen dugu jarraian.

Aurrekontuaren eztabaidaren kronologia

- **Urtarrilaren 29a.** 2014ko aurrekontuaren zirriborroa bidaltzen zaie Udalbatzako kideei.
- **Otsailaren 28a.** Aurkeztutako zirriborroari ekarpenak egin ahal izateko, gutuna banatzen da herri batzarren egutegiarekin.
- **Martxoaren 3, 4, 5 eta 7a.** Herri batzarrak egiten dira proposamena aurkezteko eta ekarpenak jasotzeko.
- **Martxoaren 21a.** Aurrekontu proposamen berri bat aurkezten zaio Udalbatzari.
- **Apirilaren 8a.** Informazio batzordea egiten da aurkeztutako aurrekontua aldatuta, talde politikoen zuzenketa batzuk onartu ondoren. Sarragoa udal taldeak hainbat zuzenketa sartzeko eskatu zuen: zinegotziei eta talde politikoei ordainsariak gutxitzeko, eta musika eskolarako diru saila handitzeko, besteak beste. EAJK alkatearen dedikazioa erdira murrizteko

proposamena aurkeztu zuen. Alderdi Popularrak are gehiago, % 25era murrizteko proposatu zuen; horrez gain, alderdi horrek presoen senitartekoei laguntzak kentzeko eskaera egin zuen.

Eztabaidatu eta gero, Sarragoaren zuzenketa onartu ziren, talde horren eta Bilduren botoekin; EAJrenak eta PPrenak, berriz, atzera bota ziren.

- **Maiatzaren 22a.** Aurrekontuari hasierako onarpena emateko osoko bilkura egiten da. Udalbatzak oniritzia ematen dio aurrekontuari: 7 boto alde (Bildurenak eta Sarragoarenak), EAJren abstentzioa eta PPren aurkako botoa.

- Ekainaren 9a. Aurrekontuaren hasierako onarpena ALHAOn, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, argitaratzen da.

- Uztailaren 7a. Behin betiko onarpena argitaratzen da ALHAON.

Musika eta dantza Zigoitiko giro kulturala pizteko

dominizubi Musika Elkarteak

musika-elkartea 



Zer da Dominizubi elkarteak?

Besteak beste, musika irakaskuntza, formakuntza, praktika eta difusioa bultzatzen du. Eta horretarako musika agerpen guztiak kontuan hartzen ditu: erritmikoak, entzumenezkoak, ahots musika eta instrumentala.

Izan ere, sustatu nahi du musikarako sarbidea eta elkartearekiko parte hartzea, lehiakorra eta konparatiboa ez den giro batean, bere gaitasunengatik inor ez baztertzeko. Eta arreta handiagoa edukiz musikan aritu izan ezin direnekin, gure adinekoren kasua, esate baterako.

Zenbat ikasle daude Eskolan?

Gaur egun 162 pertsonak ikasten dute eskolan. Eta 6 irakasle daude, ikasgai hauek emateko: Dantza (Eduarne Gomez irakaslearekin); Pianoa eta Helduentzako musika lengoia (Laura Ortega); Musika hastapenak, Umeentzako musika lengoia, Haur Abesbatza eta txistu (Estitxu Sáez de Castillo); Perkusioa, Bateria eta Pianoa (Víctor García de la Torre); Gitarra klasikoa, Elektrikoa, Baxua eta Helduentzako comboa (Raúl Vera), eta Trikitixa eta Eskusoinua (Fernando Rivas).

Batzar berria

Pasa den maiatzean Zuzendaritza Batzordea aldatu zen. Orditik hona, 4 pertsonak osatutako talde berri batek bere ardurapean

hartu du *DOMINIZUBI* Elkartearen eta Eskolaren planifikazioa, kudeaketa eta zuzendaritza. Baina, aldi berean, kide guztien parte hartzea bultzatu nahi dute.

'Ikasleak eta irakasleak pozik egoteko. Gauzak gero eta hobeto egiteko, hazteko. Eta *Dominizubi* guztiona delako', azaldu du Elena Motak, zuzendari berriak.

Helburu horrekin buru belarri egiten dute lan, Eskolak eskainitako 20 bat jardueratan. Esaterako: Haur abesbatza; Helduen abesbatza; Dantza taldeak, *Oketa Alai* barne; Helduen comboa; Trikitixa, Txistu, Bateria eta Piano klaseak...

Dominizubi elkartearen sinesten dute musika oso garrantzitsua dela bizitzarako, kultura da eta. 'Eta gainera benetako plazera, gozada bat da', dio Elenak. Eta ondo daki esaten duena, ez baitzen alferrik izan Eskolako Gitarra eta Dantza ikastaroetako ikaslea, eta txikitatik abesbatza bateko kidea.

Horregatik musikarekiko zaletasuna duen edonor kide izatera gonbidatzen du, Zigoitiko Musika Eskola aurrera eraman eta finkatu ahal izateko. Eskola aukera paregabea baita, udalerriko herritar guztien eskura.

Info gehiagorako:

Dominizubi ko egoitza: Udal Plaza 2, Gopegi dominizubi@yahoo.es • T_945 46 44 08

Gorbeiko ezta + Idiazabal gazta + arrautzak + ogia + haragia + barazkiak + xaboi naturalak

Zaporeak made in Zigoitia

Eguberria mahai baten inguruan elkartzeko garaia da: lankideekin, lagunekin, familiarekin... Eta, bide batez, hemen bertan egindako kalitatezko artisauro produktuak dastatzeko. Eta oparitzeko, noski baietz. Bazenekien gure udalerrian dozena bat herritarrek etxeko elikagaiak edota ekologikoak egiten dituela? Arbasoek utzitako errezetak jarraituz, baina egungo kalitatezko eskaerei egokitzuz. Eta hauek dira emaitzak:



Idiazabal gazta

Latxa arrazako ardien esnearekin egindako gazta da, kremazko zapore oso berezia duena. Gorostiza eta Buruaga gaztandegietan salgai.

Gorbeiko ezta

Gorbeiko flora ugari eta ezberdinari esker egindako ezta fina eta zaporetsua da, erlategi txikietan sortzen dena. Miel del Gorbea, Miel Oregi Etxea eta Miel Montes de Gordon izenekin saltzen da.



Barazki saskiak

Padura Baratzen taldean barazki, lekale eta ortuariz betetako saskiak prestatzen dituzte. Baratzeko hautaketarik onena, denboraldiaren arabera.



Xaboi eta krema naturalak

Ogiatz gain, Oki Goxo Elkartek kosmetika naturala lantzen du. Landabelarrak erabiliz krema eta xaboiak egiten ditu.



Baserriko ogia

Artzegi jatetxeko labean egunero egiten da etxeko ogia. Eta Oki Goxo Elkarteak ogi ekologikoa daukate, ama orearekin egindakoa.

Baserriko arrautzak eta arrautza ekologikoak

Oketa etxaldeak aske hazitako oiloen arrautzak saltzen ditu. Eta Errekan aurki ditzakezu modu ekologikoan elikatutako eta zaindutako oiloenak.



Haragi sortak

Beste hainbeste gertatzen da haragiarekin: Naturokela eta Korta Berriko abeltzainek ganaduaren zati ezberdinekin egindako sortak komertzializatzen dituzte zuzeneko salmentaren bitartez.

BURUAGA ARDITEGIA GAZTANDEGIA
Etxabarri Ibiña 945 46 09 16

GOROSTIZA GAZTANDEGIA
Pedro Baserriak 945 46 40 72

MONTES DE GORDON EZTIA
OREGI ETXEA EZTIA
DEL GORBEA EZTIA
Manurga 945 27 26 73

OREGI ETXEA EZTIA
Manurga 945 46 43 03

OREGI ETXEA EZTIA
Manurga 945 46 40 70

OREGI ETXEA EZTIA
Ondategi 945 46 40 18

OKETA LANDA ARRAUTZAK
Etxaguen 609 34 51 29

ERREKA ARRAUTZ EKOLOGIKOAK
Ondategi 626 50 93 46

PADURA BARATZA
Gopegi 615 76 48 65

NATUROKELA
Gopegi 678 42 47 47

KORTA BERRI S.C.
Etxabarri Ibiña 945 46 01 41

ARTZEGI OKINDEGIA
Gopegi 945 46 40 26

OKI GOXO ELKARTEA
Manurga 945403450



WILLIAM BLAKEren bala(da)k


Udal Liburutegiak Hala Bedi irratiko *Celosamente Gordea* programari, astero ipuin kontalarien saio bati eta *Artium* liburutegiko erakusketa bati egin die harrera

Texto y selección de fotos: **Javier Arbulu**



Liburutegian dena ez doa noraezean. Mailegua ondo dabil. Liburutegien arteko maileguak funtzionatzen du (horren bitartez, beste liburutegiari ere eskatu ahal zaizkie liburua). Ordenagailuak ondo dabilta. Betidanik nahiko aldrebesa izan den liburuzaina bigarren mailako ekuazioak egiten hasi da, zatiketa hamartarrak eta Europa hego-mendebaldeko ibai batzuen izenak ere badakizki. Liburuak pilatuta nonahi ikusten badituzue, ez aztoratu, dena ondo doa. Pitinka-pitinka. Liburuzaina ez baduzue ikusten, erretira itzazue liburu batzuk, eta hantxe topatuko duzue, ekaitzaren erdian abandonatutako txakurtxo baten gisan. Ez zaitzete kezka, ez dizue kosk egingo; lagunaren premia besterik ez du. Denbora asko pasatzen bada, eta ez baduzue aurkitzen, sar zaitzete beldurrik gabe liburu artera, jakituriaren eremu horretara, binaka sartu, ahal dela.

Hitzorduak liburutegian:



Celosamente Gordea

Joan den abenduaren hamaikan, Manex eta *Celosamente Gordea* programako kideak etorri ziren gure liburutegira. *Celosamente Gordea* Hala Bedi irratia ostegunero hiruretatik

lauretara emititzen duen irratsaioa da. Manex, ezagutzen ez dutenentzat, Zuiako Kuadrillako euskara teknikaria da; ezagunentzat, berriz, bertsoekin dantza egiten duen gizasemea. Zorte onekoak gu! Ez dugu zertan damurik izan! William Blake gurekin izan da (inoren ero ni). Beren ondoan, *Inor* izena hartu duen indiar bat. Gainerakoa, poesia izan da: misterio hutsa (misterioak beti begiratzen digu aldi berean urrutitik eta hurbiletik).



Nobela Grafikoa. Salaketa eta gizarte-kritika

(abenduaren 17tik otsailaren 2ra arte). Artium museoaren dokumentazio-zerbitzuak utzitako erakusketa da. Horri esker, Gabonetan oso komiki katalogo onaz gozatuko dugu.

Irakurraldiak liburutegian

Urtariletik aurrera, Zigoitiko herritarrak izango dira protagonistak. Txema eta Ana izango dira lehenengoak irakurtzen. Asmoa da astean behin biltzea liburutegian eta ordu erdiz edo, ipuin bat kontatzea. Lehenengo irakurleekin hasiko gara.

Ohorezko irakurle zerrenda

1. Luis Vergara, Zigoitia hegoaldeko irakurlerik ausartena. Irakurlea da, bai, baita idazlea ere. Bere narratioak gogorak eta samurrak dira; gaizkia eta amodioa agertzen dira bere testuetan. Bere testuak irakurri nahi badituzue zatozte Bengolarra tabernara, edo gure liburutegira. Ez ezazue ahaztu pendrive bat, horixe da eraman behar den guztia.

2. Anaren amatxi, bere haur-oinetakoengatik eta Maite, haur-oinetakoak egiteko bere artilearengatik (liburutegian artilezko oinetako zerbitzu berria dugu).

3. Txema, ideia berea izan delako. Artilezko oinetakoena ez, irakurraldiarena, bai horixe!

4. Euren seme-alabekin liburutegira igotzen diren eta pazientzia eta samurtasun handiz liburuak irakurtzen dizkieten gurasoak.

5. Carol, Ioseba, Ander, eta, oro har, hitzarmen justu baten alde borrokan diren lankideak.




Matxurak argiteria publikoan? Abisatu, mesedez


Zigoitiko 17 herrietako argiteria publikoaren sarearen funtzionamendu zuzenaz eta matxuren konponketaz arduratzen da Udala, mantenu enpresa baten bidez.

Hala ere, gurea oso sakabanatutako udalerrria da eta batzuetan abisua udaletxera ailegatzeko denerako eta teknikariekin harremanetan jartzeko gainerako, egun batzuk pasatzen dira. Saihestu daitezkeen itxaronaldiak saihesteko eta konponketak azkartzeko, aberien abisua edonork jakinarazi ahal du udaletxera deituz. Matxura edo jazoerarik ikustekotan (apurtutako edo amatatutako farolak, argi-horniketaren hutsegiteak...) esan mesedez udaleko **945 46 40 41** telefono zenbakira deituta. Horrela ahalik eta lasterren konpondu ahalko dugu.



Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA	
			
	ZETIATZE ZETIATZE	OKIZETA OKIZETA	ETXAGUEN ETXAGUEN
	MURUA MURUA	LARRINCHA LARRINCHA	MARBUJA MARBUJA
	ZARATE ZARATE	OKAZATEGO BERRERBITZEA OKAZATEGO BERRERBITZEA	EMBE EMBE
		MURUA MURUA	BERRERBITZEA BERRERBITZEA
		APODOMA APODOMA	OKAZATEGO BERRERBITZEA OKAZATEGO BERRERBITZEA
			VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ
Azkenheratik Ostiratsa Lunes a Viernes	* * * *	7:00 10:00 15:35 20:50	7:02 10:02 15:37 20:52
		7:04 10:04 15:39 20:54	* * * *
		7:08 10:08 15:43 20:58	7:10 10:10 15:45 21:00
		7:13 10:13 15:48 21:03	7:18 10:18 15:53 21:08
		7:50 10:50 16:25 21:40	
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua		*Servicio de acercamiento con aviso previo	
Letra beltzez dauden ordutegietan, ikasturtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua		Los horarios en negra sólo se realizan durante curso escolar	

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA	
			
	VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ	OKAZATEGO BERRERBITZEA OKAZATEGO BERRERBITZEA	ZARATE ZARATE
	OKAZATEGO BERRERBITZEA OKAZATEGO BERRERBITZEA	MURUA MURUA	LARRINCHA LARRINCHA
	EMBE EMBE	MURUA MURUA	ETXAGUEN ETXAGUEN
		APODOMA APODOMA	OKIZETA OKIZETA
			ZETIATZE ZETIATZE
Azkenheratik Ostiratsa Lunes a Viernes	9:00 14:45 20:00	9:25 15:10 20:25	9:32 15:17 20:32
	* * *	* * *	* * *
	9:42 15:27 20:42	* * *	9:46 15:31 20:46
			9:48 15:33 20:48
			9:50 15:35 20:50
			* * *
*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua		*Servicio de acercamiento con aviso previo	